XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA SAILA

3481

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 9koa, Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariarena, diru-laguntzak emateko eta irakurletzak ezartzeko Etxepare Euskal Institutuaren balorazio batzordeak hautatu eta osatzeari dagokiona.

Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute-ren Sorkuntza eta Arautzeari buruzko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 4. artikuluko f) atalean xedatutakoaren arabera, Etxepare Institutuari dagokio Institutuaren helburuekin, hots, atzerrian euskal kultura eta hizkuntza sustatzearekin eta hedatzearekin, bat datozen ekimenak garatzen dituzten erakunde publiko eta pribatuei diru-laguntzak esleitzea.

Halaber, aipatutako artikuluaren b) atalak xedatzen du Etxepare Euskal Institutuari dagokiola irakurletzak ezartzen laguntzea.

Azaroaren 11ko 1/1997 Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, bere 49.3 artikuluan xedatzen du laguntzak eta dirulaguntzak dagozkien arau erregulatzaileek xedatutakoaren arabera eman beharko direla, beti ere ezarritako baldintzak betetzen dituztenen konkurrentzia askea eta irisgarritasunean berdintasuna bermatuz. Balorazio eta hautapen batzordeak sortzea xedatzen denean, bere kideak aukeratzea eta batzordea osatzea Ebazpen honetan ezarritako irizpideen arabera egingo dira.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa iruditzen zait Etxepare Euskal Institutuari irizpide eta prozedura batzuk ematea bere jarduera bermatzeko balorazio eta hautapen batzordeen kideen osaera eta kideen aukeraketari dagokionez. Horren helburua dirulagunzak ematerakoan eta irakurletzak ezartzerakoan impartzialtasuna bermatzea da, prozedurak eta metodoak definituz eta euren funtzionamendua ezarriz, bai eta batzordekideak izendatuz ere.

Eta esandakoari jarraikiz, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Balorazio eta hautespen batzordeen zereginak, egitura, eta osaera.

Balorazio Batzordeari dagokio unean uneko Deialdiaren ebazpen proposamena ematea. Proposamenak diru-laguntza zein eskatzaileri edo eskatzaile zerrendari ematea proposatzen den azaldu beharko du, bai eta zenbatekoa ere, erabakia hartzeko jarraitutako irizpideak adieraziz.

Balorazio eta Hautapen Batzordeek ondoko egitura izango dute: Lehendakaritza, Idazkaritza eta Batzordekidetza.

Balorazio edo Hautespen Batzordeen lehendakari-funtzioak beteko ditu Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak edo berak eskuordetzen duenak. Lehendakariari dagokio bileren buru izatea, eztabaidak bideratzea eta bertan behera uztea horretarako arrazoiak daudenean, eta kalitateko botoaren bidez balizko berdinketak ebaztea.

Idazkari lanak, ahotsa bai baina botorik gabe, Etxepare Euskal Institutuko ordezkari bat izango da. Idazkariari dagokio bera joaten den bileretako akta-proposamenak idaztea.

Etxepare Euskal Institutuak bitik bost batzordekidera izendatuko ditu. Batzordekideak Institutukoak edo kanpokoak izan ahalko dira.

Halaber, ordezko batzordekide bat izendatuko da norbait falta denerako.

Balorazio eta Hautespen Batzordearen bileretara agertu eta bertan parte hartu ahal izango dute, ahotsa bai baina botorik ez dutela, eta beti ere batzordekideen gehiengoak onartuta, aztertuko diren gaiei buruzko jakintza espezifikodun zenbat-nahi adituk.

Balorazio edo Hautespen Batzordeak sortzean, kontuan izango da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan xedatutakoa.

2. artikulua.- Batzordetik kanpoko kideak hautatzeko irizpideak.

1.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, bitik bost batzordekidera izendatuko dira. Etxepare Euskal Institutukoak edo Institututik kanpokoak diren batzordekideak izendatu ahal izango dira.

Institututik kanpoko batzordekideak dagokion gaian aintzatetsitako aditu eta profesionalen artean izendatuko dira.

Institututik kanpoko kideen aukeraketa honako irizpideen arabera egingo da:

- Euskal Administrazio Publikotik kanpokoak izango dira.

- Egokitasun-irizpidea. Dagokion gaiko esparrukoak edo baloratuko den arlo multzotik hurbilekoak izan beharko dute.

- Esperientzia-irizpidea. Baloratuko den arloko jakintza eta esperientzia profesional egiaztagarria aintzatetsiko da.

Hautespen eta balorazio batzordeetan kanpoko batzordekide moduan parte hartzen dutenek I. eranskinean agertzen den izena emateko fitxa aurkeztu beharko dute behar bezala beteta goian aipatutako eskakizunen konkurrentzia baloratzearren.

3. artikulua.- Balorazio eta hautespen batzordekideen betebeharrak eta eginbideak.

Balorazio edo Hautespen Batzordeko kideek honako betebeharrak hartzen dituzte euren gain:

- Profesionaltasun osoz beteko dituzte euren funtzioak; betiere euren jakintzak, gaitasunak eta esperientzia oinarritzat hartuta arituko dira eskatu zaizkien atazetan; halaber, gomendioetan eta ekintzetan erantzukizunez jokatuko dute, bai eta euren eskuetan jarritako baliabide eta informazioa modu arrazionalean erabiliko ere.

- Kideek objektiboak eta neutralak izan beharko dute dagozkien atazak betetzean, edozein diskriminazio mota saihestuz eta berdintasun printzipioa errespetatuz.

- Batzordearen orientabideekin eta batzordeak hartutako erabakiekin bat datozela bete beharko dituzte euren funtzioak.

- Batzordean parte hartzeagatik jasotako informazioa konfidentzialtasunez gordeko dute, eta horretarako Ebazpen honen II. eranskinean agertzen ereduaren arabera bete beharko dute konpromiso eta konfidentzialtasunaren formularioa, Etxepare Euskal Institututik kanpoko batzordekideak direnean.

- Eta batzordean parte hartzeko edozein interes-auzi adierazi beharko dute, horretarako III. eranskinean agertzen den interes-adierazpenen formularioa betez.

4. artikulua.- Ordezteak eta ordezkapenak.

Balorazio edo Hautespen Batzordeko kide orok eskatu ahal izango du, saiora agertu ezin diren kasuetan, ordezkatua izan dadin.

Honakoak izango dira saiora ez agertzeko arrazoi justifikatuak:

- Gaixotasuna.

- Jarduera edo/eta konpromiso akademiko edo profesionalak.

- Asistentzia ekiditen duen edozein egoera pertsonal.

Batzordeko kide batek batzordeko saioren batera agertu ezin duenean, faxez edo mezu elektroniko bidez jakinarazi beharko dio Etxepare Euskal Institutuari, ordezkoa izendatzeko jardunbideari ekiteko.

5. artikulua.- Akordioak eta aktak.

Batzordearen erabakiak kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartu behar dira. Lehendakariak kalitateko botoa izango du.

Egindako bilera bakoitzaren akta jasoko du idazkariak.

Aktek Batzordearen onarpena, idazkariaren sinadura eta lehendakariaren oniritzia behar dute.

6. artikulua.- Aurka-egiteko erregimena.

Balorazio eta Hautapen Batzordeak emandako balorazioen aurka jo ahal izango dute interesdunek, dagokion Dirulaguntza Deialdian ezarritako mekanismoekin eta epeekin bat.

7. artikulua.- Balorazio eta hautespen batzordeetako ordainsariak.

Etxepare Euskal Institutuko kideek ez dute Balorazio edo Hautespen batzordeetan parte hartzeagatik ordainsaririk jasotzeko eskubiderik, Zerbitzu-arrazoien araberako kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedatutakoaren arabera dagozkien kalte-ordainak gorabehera.

Kanpoko batzordekideek dietak jasotzeko eskubidea izango dute ondoko arrazoiengatik:

- Bidaia gastuak: balorazio eta hautapen batzordera joateko erabiltzen den edozein garraiobide erabiltzeagatik ordaindutakoa da.

- Agertzeagatiko dietak: balorazio eta hautapen batzordeetan egindako lanagatik ematen den sari ekonomikoa da.

Goian aipatutako arrazoiengatik ordaindutako zenbatekoak IV. eranskinean zehazten dira. Bere gaurkotzea Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariak horretarako emandako Ebazpenaren bitartez egingo da.

Goian aipatutako zenbatekoak ordaintzeko V. eranskinean agertzen den ereduaren arabera hirugarrenen altaren inprimakia behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango da indarrean.

Donostia-San Sebastián, 2011ko ekainaren 9a.

Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria,
MARIA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN BALORAZIO ETA HAUTESPEN BATZORDEETAKO KANPOKO BATZORDEKIDEEN IZEN-EMATE FITXA
FICHA DE INSCRIPCIÓN DE VOCALES EXTERNOS COMISIONES DE VALORACIÓN Y SELECCIÓN DEL INSTITUTO VASCO ETXEPARE

Abizenak/*Apellidos*:
Izena/*Nombre*:

Organismoa/*Organismo*:

Zentroa/*Centro*: Kategoria/*Categoría*:

Departamentua/*Departamento*:

Helbidea/*Dirección*:

Helbide elektronikoa / *Correo electrónico*:

Telefonoa/*Teléfono*: Faxa/*Fax*: Web-orria / *Pág. web*:

Hizkuntza ezagutza / *Conocimiento en Idiomas*:

Ezagutza arloa / *Área de conocimiento*:

Espezializazio gaiak (lehentasunezko hurrenkeran / *Temas de especialización (por orden de prioridad)*:

Esperientzia/*Experiencia*:

Sariak eta aipamenak / *Premios y distinciones*:

Beste jarduera aipagarri batzuk / Otras *actividades relevantes*:

15/1999 Lege organikoan xedatutakoa betetzeko, Etxepare Euskal Institutuak jakinarazten dizu dokumentu/formulario hau betetzean jasotako datu pertsonalak izapideak egiteko fitxategi batean sartuko direla jakinarazten dizu.
Nahi baduzu, Legeak aurreikusitako datuetan sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta ukatzeko eskubidea balia dezakezu 20006-Donostiako Prim kalearen 7an dagoen Etxepare Euskal Institutuaren aurrean.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Instituto Vasco Etxepare, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/impreso/formulario, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero.
Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante el Instituto Vasco Etxepare, calle Prim, 7. 20006 Donostia-San Sebastián.

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

KONPROMISO ETA KONFIDENTZIALTASUN INPRIMAKIA BALORAZIO EDO HAUTESPEN BATZORDEETAKO KIDEAK
FORMULARIO DE COMPROMISO Y CONFIDENCIALIDAD VOCALES DE LAS COMISIONES DE VALORACIÓN O SELECCIÓN

Kidearen izena *Nombre del/de la vocal*	
Balorazio/Hautespen batzordea *Comisión de Valoración o Selección*	
Data/*Fecha*	

Behean sinatzen duen .... -(e)k, ... NAN zenbakidunak onartzen du Etxepare Euskal Institutuak goian aipatutako Balorazio edo Hautespen Batzordean parte hartzeko izendatu duela, bai eta egitekoa onartu duela ere.	*La/el abajo firmante, ... con DNI ....., reconoce haber sido nombrada/o por el Instituto Vasco Etxepare para participar en la Comisión de Valoración o Selección arriba mencionado y haber aceptado ese cometido.*
Etxepare Euskal Institutuaren Balorazio edo Hautespen Batzordetik kanpoko kide gisa, egokitu zaidan atazarako jasotako informazioaren eta materialaren izaera konfidentziala errespetatzeko eta, ebazpen-proposamena egin delarik, itzultzeko konpromisoa hartzen dut.	*Como vocal externo/a de la Comisión de Valoración o Selección del Instituto Vasco Etxepare me comprometo a respetar el carácter confidencial de la información y documentación recibida en el contexto del cometido que me ha sido encomendado y a devolverla una vez emitida propuesta de resolución.*
Onartzen dut Etxepare Euskal Institutuaren diru-laguntzen harira Etxepare Euskal Institutuaren beraren zein eskatzaileen -lektoregaiak, artistak, artista taldeak eta erakunde artistikoak- informazio eta dokumentazio konfidentziala jasotzeko aukera dudala.	*Reconozco que soy susceptible de recibir información y documentación confidencial del Instituto Vasco Etxepare así como sobre los solicitantes -lectores, artistas, colectivos de artistas y asociaciones artísticas- de subvenciones del Instituto Vasco Etxepare.*
Hortaz, konpromisoa hartzen dut: ez dudala informazio eta dokumentazio konfidentziala zabalduko; eta sekretu profesionalari dagozkion jasotako datu pertsonalak isilpean gordeko ditudala, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoan xedatutakoaren arabera. Konfidentzialtasun betebehar honen iraupena betierekoa izango da.	*Me comprometo a no divulgar dicha información y documentación confidencial y a mantener el secreto profesional respecto de los datos de carácter personal a los que tenga acceso de acuerdo con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. Esta obligación de confidencialidad tendrá una duración indefinida.*
Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendariak 2011ko urtarrilaren 1ean egindako ebazpenean, Diru-laguntzak esleitzeko eta dagozkion lektoretzak ezartzeko Balorazio eta Hautespen Batzordeen aukeraketa eta osaerari buruzkoan, xedatutakoaren berri dudala aitortzen dut. Bat egiten dut bertan aipatutako oinarriekin eta balioekin. Bertan zerrendatutako betebeharrak eta eginbideak nire gain hartzeko legezko konpromisoa hartzen dut.	*Declaro conocer lo dispuesto en la Resolución, de 20 de mayo de 2011, de la Directora del Instituto Vasco Etxepare, relativa a la selección y constitución de las Comisiones de Valoración y de Selección del Instituto Vasco Etxepare para la concesión de subvenciones y el establecimiento de lectorados y su alcance. Me adhiero a los principios y a los valores que en él se mencionan. Me comprometo legalmente a asumir todos los deberes y obligaciones que se enumeran en el mismo.*

Sinadura/*Firmado*

.....(a)n, ...(e)ko ..... aren ..... (a)n
En ..... , a ..... de ..... de .....

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege organikoan xedatutakoa betez, Etxepare Euskal Institutuak jakinarazten dizu dokumentu/inprimaki/galdetegi honen bidez jasotako datu pertsonalak datuak gestionatzeko fitxategi batean sartuko direla.
Gura izanez gero, datuok eskuratzeko, aldatzeko, bertan behera uzteko edo ukatzeko eskubidea gauza dezakezu Etxepare Euskal Institutua, Prim kalea 7 zk., Solairuar. Ezk., 20006 Donostia-San Sebastián helbidean.
En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Instituto Vasco Etxepare, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/impreso/formulario, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero.
Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante el Instituto Vasco Etxepare, calle Prim, 7. 20006 Donostia-San Sebastián.

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

INTERESEN DEKLARAZIORAKO INPRIMAKIA
FORMULARIO DE DECLARACIÓN DE INTERESES

Ebazpen honen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Balorazio edo Hautespen Batzordeetako kide orok hartzen du konpromisoa, bere egitekoa baldintza dezaken interes zuzen edo zeharkakoren bat egongo balitz, huraxe aitortzeko. Bete dagozkizun laukitxoak: ☐ Ebazpen honetan xedatutako guztiak, eta batez ere bertako 3. artikulukoak, ulertu ditudala aitortzen dut. ☐ Etxepare Euskal Institutuko Balorazio edo Hautespen Batzordean parte hartzeko abstentzio arrazoi izan daitezkeen interes zuzen edo zeharkakorik ez dudala aitortzen dut. Edo bestela, ☐ Ebazpen honen 3. artikuluan definituriko interes zuzenak edo zeharkakoak izan ditzakedala aitortzen dut, eta haien inguruabarren berri jasota uzten dut:	*Todo/a vocal de una Comisión de Valoración o Selección del Instituto Vasco Etxepare se compromete a declarar la existencia de cualquier interés directo o indirecto que pudiera existir para la realización de su cometido, según lo dispuesto en el artículo 3 de la presente Resolución.* *Rellenar las casillas correspondientes:* ☐ *Declaro haber comprendido en su totalidad la presente Resolución y particularmente el artículo 3 de la misma.* ☐ *Declaro no tener interés directo o indirecto, que pudiera constituir una causa de abstención para tomar parte en la Comisión de Valoración o Selección del Instituto Vasco Etxepare.* *O si no,* ☐ *Declaro tener intereses directos o indirectos como los definidos en el artículo 3 de la presente Resolución, y dejo constancia de dicha circunstancia:*

Eskatzailearen, artistaren, artista taldearen eragilea edo erakundearen izena *Nombre del solicitante, artista, colectivo de artistas, promotor o asociación*	Harremana *Vínculo*
- - - - -	- - - - -

Data eta sinadura: .....

Fecha y firma: .....

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege organikoan xedatutakoa betez, Etxepare Euskal Institutuak jakinarazten dizu dokumentu/inprimaki/galdetegi honen bidez jasotako datu pertsonalak datuak gestionatzeko fitxategi batean sartuko direla.
Gura izanez gero, datuok eskuratzeko, aldatzeko, bertan behera uzteko edo ukatzeko eskubidea gauza dezakezu Etxepare Euskal Institutua, Prim kalea, 7 zk., solairua. Ezk. 20006 Donostia-San Sebastián helbidean.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Instituto Vasco Etxepare, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/impreso/formulario, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero.
Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante el Instituto Vasco Etxepare, calle Prim, 7. 20006 Donostia-San Sebastián.

IV. ERANSKINA / *ANEXO IV*

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN BALORAZIO ETA HAUTESPEN KANPOKO BATZORDEKIDEEN DIETAK
DIETAS DE LOS VOCALES EXTERNOS DE LAS COMISIONES DE VALORACIÓN Y SELECCIÓN DEL INSTITUTO VASCO ETXEPARE

Joateagatiko dietak *Dietas por asistencia*	80 euro bilera eguneko *80 euros por día de reunión*
Nork bere autoa erabiltzeagatik *Uso vehículo particular*	0,26 euro/km
Garraiobide publikoak erabiltzeagatik *Uso de medios de transporte colectivo*	Ordainketa, justifikanteak aurkeztu ondoren egingo da. *Su pago se realizará previa presentación de los justificantes correspondientes.*

V. ERANSKINA / *ANEXO V*

DATUEN ALTA/DOAKION HIRUGARRENA
ALTA DE DATOS/TERCERO INTERESADO

A HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK / *DATOS IDENTIFICACIÓN DEL TERCERO*

(1) NAN/IFK
DNI/CIF: .....

(2) Bi abizenak eta izena/Sozietatearen izena
Dos apellidos y nombre/Razón social: .....

Helbidea
Domicilio: .....

Posta kodea
Código postal: .....

Herria
Población: .....

Lurraldea
Provincia: .....

Herrialdea
País: .....

B BANKUAREN DATUAK / *DATOS BANCARIOS*

(1) Bankua
Banco ☐☐☐☐ .....

(2) Agentzia
Agencia ☐☐☐☐ .....

(3) KD
DC ☐☐ K/ korrontea
C/ corriente ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

(4) Jabea
Titular .....

OHARRA: kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.
NOTA: el titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.

C Bankuaren adostasuna
Conforme banco

Sinadura eta zigilua
Sello y firma (D)

D Hirugarrenaren adostasuna
Conforme tercero

Sinadura eta zigilua
Sello y firma (E)

E Etxepare Euskal Institutuaren onespena
V.º B.º del Instituto Vasco Etxepare

Baimendutako sinadura eta zigilua
Sello y firma autorizada

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Etxepare Euskal Institutuak jakinarazten dizu, dokumentu/inprimaki/formulario honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.
Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Etxepare Euskal Institutua. Prim kalea, 7. 20006 Donostia-San Sebastián.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Instituto Vasco Etxepare, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/impreso/formulario, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero.
Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante el Instituto Vasco Etxepare, calle Prim, 7. 20006 Donostia-San Sebastián.

ESKAERA BETETZEKO ARGIBIDEAK

A: Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1.- Pertsona fisikoak: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo atzerritarren kasuan, pasaporte zenbakia.

Pertsona juridikoak: Identifikazio fiskaleko kodea

2.- Pertsona fisikoak: izena eta bi abizen.
Pertsona juridikoak: izena edo helbide soziala.

B: Banku-datuak:

1.- Bankuaren kode eta izena.

2.- Agentziaren kode eta izena.

3.- Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol digitua eta zenbakia adieraziko da.

4.- Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoen kasuan, eta izena edo helbide soziala, pertsona juridikoen kasuan.

C: Bankuaren sinadura eta zigilua bankuaren datuak ziurtatzeko.

D: Doakion hirugarrenaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E: Etxepare Euskal Institutuak betetzeko.

DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Nortasun agiri nazionalaren edo atzerritarren kasuan pasaportearen, edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia erantsiko da.

INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACION

A: Datos identificativos de la persona física o jurídica según indican a continuación.

1.- Personas físicas: número de documento nacional de identidad, número de identificación fiscal o número de pasaporte si se trata de extranjeros.

Personas jurídicas: código de identificación fiscal.

2.- Personas físicas: nombre y dos apellidos.
Personas jurídicas: nombre o razón social.

B: Datos bancarios.

1.- Código y denominación de la entidad bancaria.

2.- Código y denominación de la agencia.

3.- Dígito de control de la cuenta y el número de cuenta del titular en la entidad bancaria.

4.- Nombre y dos apellidos en el caso de personas físicas, y nombre o razón social en el caso de personas jurídicas.

C: Firma y sello de la entidad bancaria certificando los datos bancarios.

D: Firma y sello del tercero interesado, certificando la corrección de los datos que figuran en el documento.

E: A rellenar por el Instituto Vasco Etxepare.

DOCUMENTACIÓN SOPORTE

Se adjuntará fotocopia del documento nacional de identidad, pasaporte en caso de extranjeros, o tarjeta de identificación fiscal.